



Lurraldeko Hezkuntz Proiektua

2024 - 2027



EDITORIALA

*"Eman diezaiegun leku
nagusia haurtzarari eta
gaztaroari"*

Badu zenbait urte Hazparneko Herriko Etxea lanean ari dela kalitatezko harrera eta hezkuntza-jarduera herrikoiak eskaintzeko haur eta gazte guzietan baita ere haien familiei.

Aisialdi zentroaren eta gazte-gunearen bidez, Herriko Etxeak nahi du hezkuntza eta pedagogia jarraikitasuna bermatu eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko denboretan..

Hazparneko Herriko Etxeak eta hainbat eragilek eman nahi duten Lurraldeko hezkuntza-proiektuaren xedea da; “haurrak bere ibilbidearen egile eta eragile izan behar du”.

LHP hori beren gain hartuz, herriko animatzaileek beren proiektu pedagogikoa berresten ahalko dute eta egunerokoan engaiatzen diren jardueraren kalitatea atxiki..

Beraz, haur eta gazte zerbitzuaren aldeko engaiamendu komun baten bidez gauzatuko dugu proiektu hau..



AURKIBIDEA

01

Sarrera

02

LHPren eremua eta publikoa

03

2024-2027ko LHPren eta Asteazken Planaren erronkak

04

Ebaluazio irizpideak

05

Gibel-plangintza

03

01 SARRERA

04



Hazparne, adingabeak eta haien familiak

- ❖ 2024ko urtarrilaren 1ean, Hazparnen 7 538 biztanle bazen orotara.
- ❖ Herriak bere eskola publikoaren ardura du. Egoitzaren jabe da eta eraikuntza, berrikuntzak, handitzeak eta mantenua bermatzen ditu... Animazioan berezituak diren lurraldeko eragileak ere kudeatzen ditu, langile berezituak eta higiene eta sukaldaritza langileak.
- ❖ Hazparneko familien %40k gutienez haur badute. Buraso bakarreko familiak, berriz, herriko familien % 11 dira, eta horrek burasotasunerako laguntza, zaintza-molde eta dirulaguntza behar handia sortzen du.
- ❖ Hazparnen haurrak dituzten bikoteen partearen gorakada adierazgarriak (+ % 24 10 urtean) pentsatzera ematen du herria erakargarria dela familientzat.



Zer ote da Lurraldeko Hezkuntza Proiektua (LHP)?

- ❖ LHP desmartxa boluntarioa da, haurren onetan eraikia.
- ❖ Andere auzapezak gidatua da eta lurraldeko baliabideak mobilizatzeko eta eragile guziak koordinatzeko parada ematen du, haurrendako proiektuen artean lotura bermatzen duten hezkuntza-ekintzak proposatzeko.
- ❖ Haur bakoitzaren beharrak errespetua, haien erritmoak, nahiak eta arrakastak proiektuaren erdian dira.
- ❖ LHP 3 urterako izenpetua da (2024/09/01etik goiti). Aitzinatzeko ahala ematen du eta erregulariki ebaluatzen da.



Zer ote da Lurraldeko Hezkuntza Proiektua (LHP)?



07



Zer ote da Asteazken Plana?

- ❖ 2018az geroztik, Asteazken Planak kalitatezko hezkuntza-eskaintza atxikitzea, berrezartzea edo garatzea du xede asteazkenetarako, eta ahal bezainbat haurrentzat eskuragarri egitea..
- ❖ Familien Laguntza Kutxak Asteazken Plana sostengatzen du familiek familia bizitza eta lanbide bizitza bateratzeko gisan.

LHPren kariatara hartu engaiamenduak Asteazken Planaren araudiaren eskakizunei ihardestea du xede, hala nola:

- Haurren denbora desberdinen osagarritasuna eta hezkuntza-koherentzia
- Publiko guzien harrera, bereziki ahalmen urritasuna duten haurrena
- Lurraldeko aberastasunen balioan ezartzea
- Kalitatezko hezkuntza-jardueren garapena

02

LHPren eremua eta publikoa



Zenbait zenbaki



- **2 haurtzaindegi**
 - (Irriñoak eta Kuluxka)



- **Lehen mailako 3 eskola**
 - (Jean Verdun, Santa Terexa eta Ezkia Ikastola)



- **2 kolegio**
 - (Elhuyar eta Ursuia)



- **2 lizeo**
 - (Armand David eta San Josep)



- **1 CDFAA**

- ❖ + 700 ikasle herriko lehen mailako eskoletan
- ❖ 2 ULIS dispositibo (lehen mailan eta kolegioan)
- ❖ 1 aisialdi zentro (Josta Leku)
- ❖ 1 gazte harrera, egituratzeko bidean (Samactiv')
- ❖ 18 herri-langile haur/gazte zerbitzuan
- ❖ Herriak antolatu harrera-denboretan :
 - + 280 hurrek izena emana dute eskolaldi inguruko denboretan
 - + 130 hurrek izena emana dute eskolaz kanpoko denboretan
 - + 20 kirol eta kultur ekipamendu
- + 125 elkarte herrian



GidaBeko kideak

PARTAIDE INSTITUZIONALAK

- ❖ Gazteria, Engaiamendu eta Kirol Departamendu Zerbitzua
- ❖ Hezkuntza Ministerioa (lehen mailako eskolak eta kolegioak)
- ❖ Familien Laguntza Kutxa

HAZPARNEKO HERRIA

- ❖ Andere auzapeza
- ❖ Hezkuntza, gaztaro eta herritar bizitzaren axuanta
- ❖ Zerbitzuen zuzendari nagusia
- ❖ Haur eta gazte zerbitzuaren arduraduna
- ❖ Eskolaz kanpoko / eskolaldi inguruko zuzendariak
- ❖ Herriko haurtzaindegiko zuzendaria
- ❖ GEUZako zuzendaria

ELKARREKIN PARTAIDEAK

- Haur-Burasoen Harrera Lekua (HBHL)
- ❖ Eskolatzea Laguntzeko Tokiko Kontratuaren (ELTK) erreferentea



Haurren funtsezko beharrak

- ❖ “Haurren funtsezko beharren” kontzeptuak funtsezko galdera bati erreferentzia egiten dio: haurrentzat beharrezkoa dena zehaztea.
- ❖ Beharren irudikapena aldatu da denboran zehar, kontzepzio hierarkiko batetik (Maslow piramidea) “meta-behar” baten identifikaziora iraganez (Lacharité).
- ❖ T. Brazelton eta S. Greenspan (2003) medikuek zazpi “behar bazterrezin” finkatu dituzte. Haur orok ukaiteko eskubidea duen esperientziak eta artak dira, honela adieraziak:
 - harreman beroen eta egonkorren ukaiteko beharra
 - babes fisikoaren, segurtasunaren eta erregulazioaren beharra
 - bakarkako desberdintasunei egokitu esperientzien beharra
 - garapenari egokitu esperientzia beharra
 - muga, egitura eta igurikatze beharra
 - komunitate egonkorren, haren sostenguaren eta haren kulturaren beharra
 - gure etorkizuna babesteko beharra



Haurren funtsezko beharrak

Les besoins fondamentaux de l'enfant

Meta-beharra	Definizioa	Meta-beharra: "haurra eta haren beharrak zaintzen dituen heldu bat gutienez izateko beharra". Meta-beharra beste behar guzien gainean den beharra da, aitzinetikako baldintza eta oinarria.
	Segurtasun afektiboa	Haurrarekin borondate onez aritzea eta harreman afektibo segurtasun emailea haur ttipiaren jabekuntzen oinarrian dira.
Funtsezko beharra	Osasun eta fisiologia beharrak	- Haurraren osasuna burasoen ardura da alde batetik, eta artatzaileena bestetik, eta horiek familiak informatzeko eta laguntzeko eskumena dute "besteen artatzeko jakintzan." Haurrak bere osasun orokorra zaintzea behar du, edozein adinetan. Osasuna ez da patologia-ezan edo funtzionamendu organikoan mugatzen: gogoeta eta adierazpen modalitateak (hizkuntza, emozioak, jokamoldeak) osasunaren garapenaren parte dira. - Behar fisiologikoen asetzea, garapen fisikoaren oinarri: haurrak erritmo erregularren arabera elikatua eta garbitua izateko beharra du eta lo egiteko beharra, kantitatean eta kalitatean, bere adinaren arabera. Jantzi garbiekin eta aroaren araberrako jantziekin jantzia izateko beharra du.
	Babes beharra	Behar horrekin jokoan dena: tratu txar mota ororen aitzinean babes beharra, izan dadila indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, bikote-indarkeriaren aitzinean izatea edo arduragabekeria. Haur batek behar duen beste babes mota kanpoko inguruneko edota etxeko inguruneko arriskuek eragin ditzaketzen zauri edo kalteei dagokio.
	Esperientzia beharra eta mundua esploratzeko beharra	Erronka haurraren gaitasun motorrak, gogoeta, adierazpen eta josteta gaitasunak garatzea da. Helburua ez da haurraren gehiegizko estimulazioa sustatzea "emaitzak" kausitzeko helburuarekin (emaitzen edo bikaintasunaren xerkatzea), baizik eta haurrak bere ingurunea ezagutu eta ulertu dezan eta hartan parte hartu, interesak eta gustuak ezagutu ditzan eta bere trebetasunak eta talentuak garatzeko parada emanen dioten esperientzia nahikoa bermatzea.



Eskola denbora

Proiektua eta antolaketa



- ❖ Hezkuntza Ministerioak du eskola denbora segitzen eta irakasleek zaintzen. Haren bidez ikasleek funtsezko jakintzak eskura ditzakete eta inguruko munduarekiko interesa pizten zaie.
- ❖ Herriko 3 ama-eskolek urtero eskola-proiektu bat apailatzen dute. Proiektu horrek haurra hezkuntza sistemaren erdian ezartzeko xedea gauzatzen du, ibiltzen diren egoeren aniztasuna kontuan hartuz..
- ❖ Hezkuntza komunitateak interes berezia ematen du haurraren bizitzari eta egiazko hezkuntza ingurumena eraikitzeaz arduratzen da.



Jean Verdun eskola

- ❖ Jean Verdun eskola Hezkuntza Ministerioak segitu eskola publikoa da.
- ❖ Hezkuntza sistema printzipio nagusietan oinarritua da, hala nola laikotasuna, urrikakotasuna, neutraltasuna eta nahitaezko hezkuntza.
- ❖ Eskola ibilbidea bermatzen du ama-eskolatik lehen mailara.
- ❖ Jean Verdun eskolako eskolaldi inguruko denborak Hazparneko herriak ditu antolatzen.





Santa Terexa eskola

- ❖ Santa Terexa eskola eskola pribatua da eta elkarte-kontratupean da Hezkuntza Ministerioarekin.
- ❖ Hezkuntza-proiektua irekiduraren, komunikazioaren, inklusioaren, elebitasunaren eta balio ebanjelikoen inguruan du.
- ❖ Eskola ibilbidea bermatzen du ama-eskolatik lehen mailara.
- ❖ Santa Terexa eskolak goizeko, eguerdiko eta arratsaldeko harrera tenoreak bakarrik antolatzen ditu IKKEren bidez.





Ezkia Ikastola

- ❖ Ezkia ikastola elkarte-eskola pribatua da, elkarte-kontratupean Hezkuntza Ministerioarekin, Seaskak federatua.
- ❖ Ikastolaren hezkuntza proiektua murgiltze bidezko euskarazko hezkuntzan bermatua da.
- ❖ Seaskaren eskola-ibilbidea ama-eskolatik baxora da.
- ❖ Ezkia ikastolak goizeko, eguerdiko eta arratsaldeko harrera tenoreak bakarrik antolatzen ditu.





AHHK - Josta Leku - eskolaldi inguruko denbora

Antolaketa eta irekitze tenoreak



- ❖ Haurrak eskola aitzin eta ondotik errezibitzea eskolaldi inguruko denbora deitzen da. Denbora hori Departamenduko Gazteria et Kirol Zerbitzuari deklaratzeko zaio eta errespetatu behar ditu Adingabeen Harrera Kolektiboen araubidea, zaintza-tasa eta zaintzaileen diploma baldintzak.
- ❖ Zaintza herriko tituludun edo epe laburreko animatzaileek eta langile berezituak dute bermatzen zaintza-tasa hau segurtatzeko: 1 animatzaile 6 urtez peko 14 adingaberentzat eta 1 animatzaile 6 urteko eta 6 urtez goitiko 18 adingaberentzat (LHPren kariatara aplikatu tasa).
- ❖ Halaber, hezkuntza-xedeak definitzen dituen hezkuntza-proiektuak gidatzen du, eta lurralde eremuetako zuzendariek eta hezkuntza-talde osoak dute abiatu.

Hazparneko Herriko Etxea - Josta Leku AHHK

Tenoreak	Harrera denbora	Funtzionamendua
7:30 – 8:20	Goizeko harrera	Herriak antolatu denbora da, animatzaileek eta langile berezituek zaindua. Gela bat bat bada harrera horretarako ama eskolan eta lehen mailan. Harrera horrek haur bakoitzaren beharrei ihardesten die haien beharren arabera. Trantsizio denbora da burasoen eta kolektiboaren artean.
11:30 – 13:20	Eguerdiko harrera	Eguerdiko harrera bazkari denbora da eta heziketa jarduerak egiteko mementoa. Animatek eta langile berezituek dute zaintzen. CM2ko ikasleak eguerdi guziez laguntzen dira kolegioko jangelaraino lehen zubi baten egiteko.
16:30 – 18:30	Ama eskola Arratsaldeko harrera	Harrera memento horretan animatzaileak dira zaindari arratsaldeko askari denboran, haurren adinaren arabera jardueretan eta haurren beharren zaintzan; trantsizioa bermatzen dute eskolako denboraren eta burasoen itzultzearen artean.
	Lehen maila Arratsaldeko harrera	Lehen mailako eskolan animatzaileek dute arratseko harrera zaintzen. Arratsaldeko askaria egiten dute, estudio zaindua, autobusera laguntzen dituzte eta jarduera ludikoak proposatzen, proiektu pedagogikoarekin bat. Burasoekiko komunikazioa transmisioen zentroan da.



AHHK - Josta Leku - eskolaldi inguruko denbora

Asteazkenetako denbora



- ❖ Asteazkenetako denbora eskolaldi inguruko denboran deklaraturik da. Talde pedagogikoak jardura programa bat sortzen du hezkuntza proiektuarekin eta LHParekin harremanetan. Izen ematea Hazparnen eta Lekuinen bizi diren 3 eta 15 urte arteko haurrentzat da (titi-ttipien taldean eskolatuak diren haurrak ere onartuak dira).

20

- ❖ Zaintza herriko tituludun edo epe laburreko animatzaileek dute bermatzen zaintza-tasa hau bermatzeko: 1 animatzaile 6 urtez peko 10 adingaberentzat eta 1 animatzaile 6 urteko eta 6 urtez goitiko 14 adingaberentzat (LHPren kariatara aplikatu tasa).
- ❖ Egun erdiko harrerak ere proposatuak dira buraso/haur arteko harremanak laguntzeko baita ere herrian biziki garatuak diren elkarte-jardueretan parte hartzeko parada ukan dezaten haurrek.

Hazparneko Herriko Etxea - Josta Leku AHHK

Tenoreak	Harrera denbora	Funtzionamendua
7:30 – 9:00	Goizeko harrera	Animatzaileek dute zaintzen. Erabili egoitza Jean Verdun eskolarekin partekatzen da. Harrera horrek haur bakoitzaren beharrei ihardesten die manera indibidualizatuan. Burasoen eta kolektiboaren arteko trantsizio denbora da.
9:00 – 12:00	Jarduera denbora	Eguna aurkeztu ondoan, haurrak joanen dira hautatu jardueraren egitera ala tailer libroetara. Jarduera-egitaraua epeka prestatzen da, proiektu pedagogikoarekin harremanetan.
12:00 – 13:30	Eguerdiko denbora	Bazkari denbora ere hezkuntza-denbora da. Animatzaileak hurrekin bazkalduko dira proiektuaren arabera. Trukaketa eta ikaskuntza denbora da.
13:30 -16:30	Jarduera denbora	Memento lasai baten ondotik (loaldia ama eskolakoentzat ala jokoak lehen mailakoentzat) hurrei jarduera batzuk proposatzen zaizkie. Hurrek proposatu tailer libro bat edo jarduera bat ere bada.
16:30 – 18:00	Arratseko harrera	Harrera denbora hori trantsizio eta trukaketa mementoa da familiekin beren haurraren egunaz hitz egiteko. Gelaren ordenatzea ere eguneroko bizitzaren parte da.



AHHK - Josta Leku – Eskolaz kanpoko denbora

Antolaketa eta irekitze tenoreak



- ❖ Haurak eskoletako oporretan errezibitzea eskolaz kanpoko denbora deitzen da. Josta Leku aisialdi zentroa hetsia da Eguberriko bakantzetan eta agorrileko azken astean.
- ❖ Erreserbak Hazparneko biztanleei irekiak dira lehentasunez, egun osoko bakarrik. Harrera Jean Verdun eskolako egoitzan egiten da.
- ❖ Zaintza herriko tituludun edo epe laburreko animatzaileek dute bermatzen zaintza-tasa hau bermatzeko: 1 animatzaile 6 urtez peko 8 adingaberentzat eta 1 animatzaile 6 urteko eta 6 urtez goitiko 12 adingaberentzat (LHPren kariatara aplikatu tasa).
- ❖ Nerabegaiendako eta nerabeendako harrera egituratze bidean da. Harrera oporraldi laburretako lehen asteetan egiten da baita ere uztailen eta agorrileko lehen astean, Eihartzean.

Hazparneko Herriko Etxea - Josta Leku AHHK

Tenoreak	Harrera denbora	Funtzionamendua
7:30 – 9:00	Goizeko harrera	Animatzaileek dute zaintzen. Erabili egoitza Jean Verdun eskolarekin partekatzen da. Harrera horrek haur bakoitzaren beharrei ihardesten die manera indibidualizatuan. Burasoen eta kolektiboaren arteko trantsizio denbora da.
9:00 – 12:00	Jarduera denbora	Eguna aurkeztu ondoan, haurrak joanen dira hautatu jardueraren egitera ala tailer libroetara. Jarduera-egitaraua epeka prestatzen da, proiektu pedagogikoarekin harremanetan.
12:00 – 13:30	Eguerdiko denbora	Bazkari denbora ere hezkuntza-denbora da. Animatzaileak hurrekin bazkalduko dira proiektuaren arabera. Trukaketa eta ikaskuntza denbora da.
13:30 -16:30	Jarduera denbora	Memento lasai baten ondotik (loaldia ama eskolakoentzat ala jokoak lehen mailakoentzat) hurrei jarduera batzuk proposatzen zaizkie. Hurrek proposatu tailer libro bat edo jarduera bat ere bada.
16:30 – 18:00	Arratseko harrera	Harrera denbora hori trantsizio eta trukaketa mementoa da familiekin beren haurren egunaz hitz egiteko. Gelaren ordenatzea ere eguneroko bizitzaren parte da..



Ahalmen urritasuna duten haurren harrera

**Hazparneko Herriko Etxea engaiatzen da ahalmen urritasuna duten haurrak baldintza
hoberenetan errezibitzea antolatzen dituen harrera denboretan, eta hauek plantan ezartzea:**

- ❖ Hitzordu bat familiekin, egiturako zuzendariarekin edo haur eta gazte zerbitzuko arduradunarekin, haurraren ibilbidea ezagutzeko.
- ❖ Harrera-protokolo bat, familiak behar bezala bete beharko baitu haurrari doazkion argibide guziak ukaiteko eta haren integrazioa bultzatzeko.
- ❖ Haurraren urritasun-egoeraren arabera langile berezituen laguntza proposamena (IELUH, Handi-Ressources 64 egitura).
- ❖ Egun erdiko egokitzapenaldi bat proposatzen ahalko da integrazioa ahal bezain ongi erreusitzeko.
- ❖ Noiztenkako formakuntzak talde pedagogikoarentzat..



Gelen eta ekipamenduen kartografia


Plano zabala

Azpiegitura franko bada
Hazparnen kalitatezko
hezkuntza-jarraikitasuna
bermatzeko: zinema-
gela, mediateka, oihana,
tenis-jokalekua,
igerilekua, kirol anitzeko
gelak, herriko zezen-
plaza, lorategi
publikoa...



Gelen eta ekipamenduen kartografia

AHHKko gelen plano



- ❖ Ama-eskolakoen sailak gela bat badu eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko harreretakarako. Ikasgela gehigarriak erabiliak dira asteazkenetan eta eskolako oporretan. Barneko ataria, korralea eta ohetgia ere partekatuak dira.
- ❖ Lehen mailakoen sailak ere badu harreraren egiteko gela bat. Ikasgela gehigarriak erabiliak dira estudiorako, asteazkenetako eta eskolako oporretako. Eskolako korralea ere partekatua da.
- ❖ Kantinan ama eskolako eta lehen mailako haurrak biltzen dira bi leku desberdinetan. Ama eskolatik hurbil den belar-eremu bat erabil dezakete bi sailek.





Aurrekontua eta dirulaguntzak

- ❖ Herriko Etxeak **funtzionamendu-aurrekontu bat** ematen dio urtero AHHKri eta nerabeen gelari bere egunerokoa ahal bezain ongi antolatzeko (jarduerak, egonaldiak, elikadura, material pedagogikoa...).
- ❖ FaLKaren **funtzionamendu-laguntzek** herriaren aurrekontua osatzen dute AHHKrentzat, bereziki ohiko zerbitzu hornidura, lurraldeko bonusa LHO hitzarmenaren kariatara, Asteazken Plana, inklusio bonusa...
- ❖ Hazparneko herriak parte hartzen du ekonomikoki denentzat eskuragarri izateko gisan; hori, prezio egokituaren bidez eta familia-koefizientearen arabera. FaLK edo MSAk **familiei laguntzak** ere ematen ahal dizkiete, adibidez, denbora librerako laguntzak, oporretarako laguntzak....
- ❖ **Inbestimendurako laguntzak** ere badira, horiek irizpide batzuen arabera eman daitezke eta beti ere hezkuntza-azpiegiturak mantentzeko edo hobetzeko xedearekin (FaLK AHKrentzat, BLED, Kirolaren Garapenerako Nazio Zentroa...).

03

LHPren eta Asteazken Planaren erronkak

2024 - 2027



Agintaldiko proiektuaren engaiamenduak

- ❖ Hezkuntza-jarraikitasuna bultzatzea lurraldean
- ❖ Ingurumen eta klima erronkak kontuan hartzea
- ❖ Lehen haurtzaroa haurtzaroan sartzea emeki-emeki
- ❖ Haurra bere proiektuaren erdigunean ezartzea eta bere garapenean eta loratzean parte hartzea, bereziki egonaldiak plantan ezarriz
- ❖ Elkarbizitza eta herritartasun-ekintzak bultzatzea
- ❖ Lurraldeko kultur eta ondare aberastasuna transmititzea eta euskara bultzatzea
- ❖ Gazteria bere lurraldean integratzea kanpoko ikaskuntzaren bidez
- ❖ Erregulariki irekia den harrera leku bat proposatzea nerabeentzat herrian



Xedetzat diren helburuak

**Lurraldeko Hezkuntza Proiektu
finkoa 2024-2027rako
5 lan-ardatz, lehentasunezko
helburuek osaturik**

- 1. ardatza: Baserrialdeko lurralde-nortasuna garatzea eta balorizatzea baita munduari irekitzea ere**
- 2. ardatza: Gaitasunen ikaskuntza eta jabekuntza**
- 3. ardatza: Elkarrekin bizitzea eta bestearen errespetatzea**
- 4. ardatza: Ongi handitzea: osasuna eta segurtasuna**
- 5. ardatza: Tokiko hezkuntza politika**



1. ardatza

Baserrialdeko lurralde-nortasuna
garatzea eta balorizatzea baita
munduari irekitzea ere.

1. helburua: Haurrak eta gazteak laguntzea lurraldeko baliabideen ezagutzeko

- Kanpoko partaideei, elkarteei, familiei dei egitea ekintzetarako.
- Lurraldea bisitatzea.

2. helburua: Jarduera berrien ezagutza bultzatzea

- Kanpoko partaideei, elkarteei, familiei dei egitea.
- Lurraldea bisitatzea.

3. helburua: Euskara eta herria

- Euskal kulturaren inguruko ekintzak biderkatzea (ihauteri, olentzero, herriko bestak...).
- Euskarazko animazioak biderkatzea.
- Herriko langileen formakuntza segitzea.
- Euskarri administratiboen itzulpena segitzea.

4. helburua: Kultura eta artea garatzeko eskolan eta eskolatik kanpo hasi lana segitzea

- Eskolan dagoen haur bakoitzari ikusgarrien ikusteko parada eskaintzea.
- Artista-egonaldiak proposatzea proiektuekin harremanetan.





2. ardatza

Gaitasunen ikaskuntza eta jabekuntza

1. helburua: Ikaskuntzaren aldeko hezkuntza-testuingurua

- Etxeko ikaslanak egiteko laguntza segitzea ELTKren bidez.
- Estudio zaindua segitzea Jean Verdun eskolako haurrentzat eskolaldi inguruko denboran.
- Etxeko ikaslanak egiteko laguntza proposamena lehen mailako 3 eskolentzat.
- Kolegioa: “etxeko ikaslanak eginak” tresna.

2. helburua: Kanpoko ikaskuntzarako parada eskaintzea

- Egondien egiteko parada eskaintzea AHHKren bidez.
- Kanpoko jarduerak bultzatzea.

3. helburua: 11-18 urteko gazteen emantzipazio progresiboa bultzatzea

- Gazte egoitza baten garapena (proiektu pedagogikoa, barne araudia...).
- Gazteak haien proiektuetan laguntzea gazte-egoitzaren bidez.
- Gazteen animatzaileen ekintza pedagogikoak kolegioetan.

4. helburua: Hartzaindegi/eskolaren eta eskola/kolegioaren arteko zubiak

- Lekuen aurkezpena (eskola, aisialdi zentroa) hurrei eta burasoei.
- Trukaketak eragileen artean haurren heltzea errazteko.
- CM2ko ikasleen integrazioa kolegioko klase batzuetan





3. ardatza

Elkarrekin bizitzea eta bestearen errespetatzea

1. helburua: Desberdintasunaren hezkuntza sustatzea bere molde guzietan (elbarritasuna, iritziak, diskriminazioa...)

- Ahalmen urritasuna duten haurrak baldintza hoberenetan hartzea.
- Ekintzak Hazparneko mediatekarekin..
- Adierazpen libreko espazioak sortzea.

2. helburua: Harreman sozialak, belaunaldiarteko harremanak eta herritar ekimenak bultzatzea

- Gai horiei buruzko egunetan parte hartzea.
- Haurren proiektuak eramatea eta laguntzea.

3. helburua: Garapen iraunkorra eta herritartasuna egunerokoa

- Haurrek janari-hondakinen tratamendua kudeatzea.
- Haurrek bereizketa selektiboa kudeatzea.
- Gure ekintzak segitzea gai horren inguruan (fauna, flora, energia...).





4. ardatza

Ongi handitzea: osasuna eta segurtasuna

1. helburua: Ongizate fisikoa bultzatzea

- Gazteak praktika fisiko erregularrera bultzatzea (2024ko Joko Olinpikoen labelizazioa).
- Herriko kirol-hezitzaileen esku hartzea lehen mailako eskoletan eta AHHKetan.
- “Bizikletaz ibiltzeko jakintza” garatzea.

2. helburua: Hezkuntza-jarraikitasuna Tokiko Burasotasun Sarearekin

- Publiko zabalarari ezagutaraztea badauden eragileak.
- Ekintza komunak partekatzea.
- Trukaketa bilkurak segitzea hezkuntza-eragileekin.
- Tokiko Burasotasun Sareak burasotasun ekintzak garatzea.



5. ardatza

Tokiko hezkuntza politika

1. helburua: **Partaide guziei LHPren jabetzeko parada ematea.**

- LHPren hedatzea partaide guziei.
- LHPren hedatzea herriaren webgunean.
- GidaBen koordinazioa LHPri buruz trukatzeko.

2. helburua: **Familien informazioa eta inplikazioa bultzatzea eta segitzea**

- Eskolako haurren burasoak eskola-kontseilura gomitatzea.
- Familiak zenbait jardueratan parte hartzera gomitatzea.
- Familien atariaren eta Herriko Etxearen webgunean erabiltzea argibideen transmititzeko.

3. helburua: **Hezkuntza-taldeek formakuntza eta kalifikazioa**

- Lurralde-eragileen formakuntza.
- Eztabaida/hitzaldi eskaintzen transmititzea Herriko Etxearen webgunearen bidez.



04 Ebaluazio irizpideak

36



Ebaluazio irizpideak

**Proiektuaren ebaluazioa
Gidaritza Batzordeak du egiten
urtero.**



Ebaluazioak helburu baliagarri bakoitza ikertuko du dagozkien adierazleen bidez.



Arteko ebaluazioa egiten ahalko da LHP berriz egokitzeko.



Ebaluazio denbora hori partaideen arteko trukaketa denbora bat da gure ekintzak egokitzeko.

**Partaide guzien artean argibideen transmisioa bermatzeko,
koordinazioa herriko haur/gazte zerbitzuko arduradunak bermatuko du.**



Ebaluazio irizpideak

1. ardatza: Baserrialdeko lurralde-nortasuna garatzea eta balorizatzea baita munduari irekitzea ere

Helburuak	Helburu operazionalak	Adierazgailuak
Haurrak eta gazteak laguntzea lurraldeko baliabideen ezagutzeko	Kanpoko partaideei, elkarteei, familiei dei egitea ekintzetarako.	Dei egin zaien partaide kopurua, parte hartu duten haur kopurua eta haurren gogobetetzea
	Lurraldearen bisitak egitea.	Egin bisiten kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
Jarduera berrien ezagutza laguntzea	Kanpoko partaideei, elkarteei, familiei dei egitea ekintzetarako.	Dei egin zaien pertsona kopurua eta parte hartu duten haur kopurua
	Lurraldearen bisitak egitea.	Egin bisiten kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
Euskara eta herria	Euskal kulturaren inguruko ekintzak areagotzea (ihauteri, olentzero, herriko bestak...).	Egin ekintzen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
	Euskarazko animazioak areagotzea.	Egin animazioen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
	Herriko langileen formakuntza segitzea	Formatu den edo formakuntzan den langile kopurua
	Euskarri administratiboen itzulpena segitzea.	Euskarrien ikusgarritasuna herriko Etxearen webgunean edota familien atarian
Kultura eta artea garatzeko eskolan eta eskolatik kanpo hasi lana segitzea.	Haur bakoitzari urtero ikasgarri baten ikusteko parada ematea	Antolatu ikusgarri kopurua eta parte hartu duten haur kopurua
	Artista-egonaldiak proposatzea proiektuekin harremanetan.	Artistekin egin ekintzen kopurua, parte hartu duten haur kopurua eta haien gogobetetzea



Ebaluazio irizpideak

2. ardatza: Ezagutzen ikaskuntza eta jakintzaren eskuratzea

Helburuak	Helburu operazionalak	Adierazgailuak
Ikaskuntzaren aldeko hezkuntza-testuingurua	Etxeko ikaslanak egiteko laguntza segitzea ELTKren bidez	Parte hartu duten haur kopurua
	Estudio zaindua segitzea Jean Verdun eskolako haurrentzat eskolaldi inguruko denboran.	Parte hartu duten haur kopurua
	Laguntza proposamena lehen mailako 3 eskolentzat	Plantan ezarri den ekintza eta parte hartu duten haur kopurua
	Kolegioa: "etxeko lanak eginak" dispositiboa	Parte hartu duten haur kopurua
Kanpoko ikaskuntzarako parada eskaintzea	Egonaldien egiteko parada eskaintzea AHHKren bidez.	Egin egonaldien kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
	Kanpoko jarduerak edota kanpoko klaseak bultzatzea.	Egin kanpoko ekintzen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
11-18 urteko gazteen emantzipazio progresiboa bultzatzea	Gazte egoitza baten garapena (proiektu pedagogikoa, barne araudia...).	Euskarrien sortzea (proiektu pedagogikoa eta barne araudia) eta deklarazioa dagokien erakundeei
	Gazteen laguntzea haien proiektuetan gazte-egoitzaren bidez.	Egin den proiektu kopurua eta parte hartu duten gazte kopurua
	Gazteen animatzaileen ekintza pedagogikoak kolegioetan.	Artistekin egin ekintzen kopurua, parte hartu duten gazte kopurua eta haien gogobetetzea
Hurtzaindegia/ren/eskolaren eta eskolaren/kolegioaren arteko zubiak	Lekuen aurkezpena (eskola, aisialdi zentroa) haurrei eta burasoei.	Egin ekintzak eta haurrei eta burasoei eskaini denbora
	Trukaketak eragileen artean haurren heltzea errazteko.	Egin trukaketa
	CM2ko ikasleen integrazioa kolegioko klase batzuetan	Parte hartu duten ikastaldearen kopurua



Ebaluazio irizpideak

3. ardatza: Elkarrekin bizitzea eta bestearen errespetatzea

Helburuak	Helburu operazionalak	Adierazgailuak
Desberdintasunaren hezkuntza sustatzea bere molde guzietan (elbarritasuna, iritziak, diskriminazioa...)	Ahalmen urritasuna duten haurrak baldintza hobereenetan hartzea.	Harrera-protokoloaren eta haur-fitxen erabiltzea
	Ekintzak Hazparneko mediatekarekin	Egin ekintzen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
	Adierazpen libreko espazioak sortzea	Egin espazioa eta haurren gogobetetzea
Harreman sozialak, belaunaldiarteko harremanak eta herritar ekimenak bultzatzea	Gai horiei buruzko egunetan parte hartzea.	Egin egunen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
	Haurren proiektuak eramatea eta laguntzea.	Lagundu den proiektu kopurua, parte hartu duten haurren kopurua eta ebaluazioa haurrekin
Garapen iraunkorra eta herritartasuna egunerokoan	Haurrek janari-hondakinen tratamendua kudeatzea.	Haurrak hondakinak bereizteko gai dira eta araberako zikinontziak esku uztea
	Haurrek bereizketa selektiboa kudeatzea.	Haurrak hondakinak bereizteko gai dira eta araberako zikinontziak esku uztea
	Gure ekintzak segitzea gai horren inguruan (fauna, flora, energia...).	Egin ekintzen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua



Ebaluazio irizpideak

4. ardatza: Ongi handitzea: osasuna eta segurtasuna

Helburuak	Helburu operazionalak	Adierazgailuak
Ongizate fisikoa bultzatzea	Gazteak praktika fisiko erregularrera bultzatzea (2024ko Joko Olinpikoen labelizazioa).	Egin ekintzen kopurua kirolaren inguruan eta parte hartu duten haurren kopurua
	Herriko kirol-hezitzaileen esku hartzea lehen mailako eskoletan eta AHHKetan.	Egin esku hartzeen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
	“Bizikletaz ibiltzeko jakintza” garatzea.	Plantan ezarri den ekintza eta parte hartu duten haur kopurua
Hezkuntza-jarraikitasuna Tokiko Burasotasun Sarearekin.	Publiko zabalak dauden eragileak ezagutzea.	Eragile guziak biltzen dituen liburuxka baten egitea
	Ekintza komunak partekatzea.	Egin ekintzen kopurua eta parte hartu duten haurren kopurua
	Trukaketa bilkurak segitzea hezkuntza-eragileekin.	Egin bilkuren kopurua
	Burasotasun ekintzak garatzea Tokiko Burasotasun Sarearekin.	Egin ekintzen kopurua eta parte hartzaile kopurua



Ebaluazio irizpideak

5. ardatza: Tokiko hezkuntza politika

Helburuak	Helburu operazionalak	Adierazgailuak
Partaide guziei LHPren jabetzeko parada ematea.	LHPren hedatzea partaide guziei.	Egin hedapena
	LHPren hedatzea herriaren webgunean.	Egin hedapen numerikoa
	GidaBen koordinazioa LHPari buruz trukatzeko.	Plantan ezarri bilkurak eta parte hartzaile kopurua
Familien informazioa eta inplikazioa bultzatzea eta segitzea.	Eskolako haurren burasoak eskola-kontseilura gomitatzea.	igorri gomitak eta parte hartzaile kopurua
	Familiak zenbait jardueratan parte hartzera gomitatzea.	Igorri gomitak eta parte hartzaile kopurua
	Familien atariaren eta Herriko Etxearen webgunean erabiltzea argibideen transmititzeko.	Egin transmisio numerikoa
Hezkuntza-taldeen formakuntza eta kalifikazioa	Lurralde-eragileen formakuntza	Eragileei igorri formakuntza-plana
	Eztabaida/hitzaldi eskaintzen transmititzea Herriko Etxearen webgunearen bidez	Egin eskaintzen hedapena

05 Gibel-plangintza



Gibel-plangintza

2024ko otsaila



2024ko martxoa



2024ko iraila

Gidaritza Batzordea:
2021-2024ko LHPren
bilana eta LHPren
formalizatzea
2024 - 2027

2024-2027ko
LHPren aurkezpena
Herriko Kontseiluari

2024-2027ko
LHPren
abiatzea

2025eko azaroa

Arteko bilana

2025eko otsaila

2025eko Gidaritza
Batzordea: 2024ko bilana
eta perspektibak



Segipena eta izenpetzaileak

Proiektuaren koordinazioa

Hautetsi erreferentea:

- Annabelle Vergez anderea
- annabelle.vergez@ville-hasparren.fr

Haur/gazte zerbitzuko arduraduna:

- Benjamin Gomes jauna
- benjamin.gomes@ville-hasparren.fr
- 06.20.13.30.66

Proiektua eramaten duen elkargoa

Hazparneko Herriko Etxea

Jean Lissar karrika, 5
64240 Hazparne

Izenpetzaileak

Hazparneko auzapeza
Isabelle PARGADE
anderea

Pirinio Atlantikoetako Hezkuntza Ministerioko
Departamendu Zerbitzuetako zuzendaria

Pirinio Atlantikoetako FaLKeko zuzendaria



Haur/Gazte zerbitzua